

Kooperatiben konkurtsoaren inguruan zenbait datu eta hausnarketa

Itziar VILLAFANEZ PEREZ

Merkataritza Zuzenbideko Irakaslea
Enpresaren Zuzenbidea Saila (UPV/EHU)

Sarrera data: 2014/05/23

Onarpen data: 2014/07/15

Aurkibidea: 1. Sarrera. 2. Kooperatibak eta konkurtsoa: zenbait estatistika. 3. Kooperatiben indarguneak krisiari aurre egiteko. 4. Azken hausnarketa batzuk. 5. Bibliografia

Laburpena:

Lan honetan 2005-2013 epealdirako Espainian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan kooperatibek konkurtsoan egoteko duten tendentzia aztertzen da, hurrengo datuak alderatuz: kooperatiben kopuruaren bilakaera eta hauen pisu erlatiboa gainontzeko enpresarietara (bai enpresari mota guztietara, bai banakakoak ez diren enpresarietara), eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak (berriro ere, modu absolutuan eta erlatiboan, enpresari guztiei eta banakakoak ez diren enpresarietara dagozkien datuekin alderatuta). Alderaketa hauen emaitzek, nahiz eta beste hainbat elementurekin osatu beharko diren, doktrinak hainbatetan azpimarratu duen errealitate bat baieztatzen dute: kooperatibek krisi garaietan erresistentzia handiagoa erakusten dutela, konkurtsoan egoteko bestelako enpresari mota batzuek baino tendentzia txikiagoa izanda. Erresistentzia edo indar hau kooperatiben berezko ezaugarri batzuek azal dezakete, hala nola bazkideek enpresarekin duten inplikazio handiagoak, kooperatiben arteko kooperazio mekanismoek, edota etekinak kapitalizatze politikak, legediak aurreikusten dituen neurriak osatuta. Hala ere, kooperatibek oraindik dituzten ahulguneei aurre egiteko, oraindik ere beharrezkoa da hauen ezagutzan eta bisibilitatean sakontzea, besteak beste.

Hitz gakoak:

Kooperatibak, konkurtsoa, kaudimengabezia, indarguneak, Euskadi, Nafarroa, Espainia

Resumen:

En el presente trabajo, se analiza la tendencia que presentan las cooperativas de España, de la Comunidad Autónoma Vasca y de Navarra a estar en situación concursal en el período 2005-2013, mediante la comparativa de los siguientes

datos: la evolución del número de cooperativas y su peso relativo en relación al resto de empresarios (de todo tipo de empresarios, incluso los que no son unipersonales) y las declaraciones concursales de las cooperativas (asimismo, tanto en términos absolutos como en términos relativos y comparando con los datos correspondientes a todo tipo de empresarios, incluso los que no son unipersonales). Las conclusiones de dichas comparativas, y sin perjuicio de que habrá que completarlas con otra serie de elementos, confirman una realidad que la doctrina ha señalado en más de una ocasión: las cooperativas muestran mayor resistencia en tiempos de crisis, al ser menos propensas a estar en situación concursal que cualquier otro tipo de empresarios. Dicha resistencia o fortaleza se debe a determinadas características propias de las cooperativas, tales como la mayor implicación de los socios para con la empresa, los mecanismos de cooperación de las cooperativas o la política de capitalización de los beneficios, además de las medidas establecidas en la legislación. No obstante, de cara a hacer frente a las debilidades que las cooperativas aún presentan, todavía sigue siendo necesario, entre otros, profundizar en el conocimiento y la perceptibilidad de las aquellas.

Palabras clave:

Cooperativas, Concursos, Insolvencia, Fortalezas, País Vasco, Navarra, España.

Abstract:

This essay analyzes the tendency towards insolvency of cooperatives in Spain, Basque Region and Navarre for 2005-2013, confronting the following data: the evolution of the number of cooperatives and its relative weight in relation to the rest of enterprises, and the number of declarations of insolvency of cooperatives. The results of these comparisons, even if they should be analyzed together with other elements, certify that cooperatives show a greater resistance to face financial and economical crises, as their tendency towards insolvency-declaration is lower than for other kind of enterprises. The features and decisions of cooperatives explain this strength: the involvement of partners, the mechanisms of cooperation among cooperatives, or the profit-capitalization policy, in addition to the different measures in the Law. However, in order to face the weaknesses that cooperatives still suffer, it is necessary to go more deeply into the knowledge on cooperatives and their visibility.

Keywords:

Cooperatives, bankruptcy, insolvency, strength, Basque Country, Navarre, Spain

ECONLIT deskribatzaile-gako alfanumerikoak:

G33, J54, K20, P13, Y10, Y40

1. Sarrera

2013 urteko azaroan Fagor Electrodomesticos eta Edesa euskal kooperatibek Donostiako epaitegietan beren konkurtso adierazpena eskatu zutenez geroztik, kooperatiben konkurtsoaren inguruko gogoeta piztu da gizartean, nolabaiteko alarma ere sortuz. Ez da gutxiagorako, Mondragoneko kooperatibek orokorrean gure gizartean eta ekonomian duten pisu izugarria (baita bereziki Fagorrek modu indibidualean duen dimentsio ekonomikoa) ikusita eta mundu mailan gehien ikertzen diren esperientzia kooperatiboa direla jakinda, Fagor bera Mondragon esperientziaren jatorrian egonda.

Erreferentziazko kooperatiba honen konkurtsoak hainbat eztabaida plaza-ratu ditu: kooperatiben sostengarritasuna, sozietate hauek arautzen dituen lege-diaren interpretazio arazoak... Ordea, gai hauek ez dira berriak kooperatibentzat edo komunitate zientifikoarentzat, izan ere gizarte ekonomiaren alorrean diharduten hainbat ikertzailek aspektu hauek jorratu izan dituzte azken urteotan, eta kooperatibek arazo hauek haien egunerokoan bizi izan dituzte. Bereziki aipagarria da, aurrerago azalduko den bezala, Fagor Electrodomesticos kooperatiba ez dela konkurtso egoeran adierazi den bakarra, ezta gutxiago ere.

Hala ere, konkurtso hau azken urteotako hainbat hausnarketa eta ikerketen ondorioak bildu eta plazaratzeko aukera paregabea da. Zentzu honetan, lan honek, alde batetik kooperatiben konkurtsoei eta kaudimengabeziari buruzko gogoeta batzuk jasotzen ditu, honen inguruko azken urteotako datu batzuk aztertuta, Espainiari, Euskadiko Autonomia Erki-degoari (EAE) eta Nafarroari dagokionez. Beste alde batetik, kooperatibek krisiari aurre egiteko dituzten indarguneen azterketa bat jasotzen du, hauen jatorri eta arrazoietan sakonduz. Azkenik, kooperatibek topatzen dituzten zailtasun batzuen inguruko azken gogoeta batzuk jasotzen dira.

2. Kooperatibak eta konkurtsoa: zenbait estatistika

Kooperatiben eta krisia ekonomikoen arteko harremanak aztertzerakoan, lehenengok duten indar erlatiboa azpimarratu ohi da, hau da, beste sozietate edo enpresari batzuekin alderatuta krisi egoerei aurre egiteko gaitasun edo indar handiagoa dutela. Zentzu honetan anti-ziklikoak direla ere esan ohi da: krisiaren aurrean erresistentzia handiagoa erakusteaz gain, krisi garaietan kooperatibak sortzeko tendentzia handiagoa edota hauetan lana gutxiago murrizteko (edo lanpostu kopurua handitzeko) tendentzia dagoelako (ikusitako adibidez honen inguruan SALA, FARRÉ eta TORRES, 2014, *passim*, bereziki 5-7). Lan honetan ez dugu kooperatiben kopuruaren eta hauetan enpleguak duen bilakaeran sakonduko, baizik eta, bereziki, kooperatibek krisi ekonomikoen aurrean duten erresistentzia, datu estatistikoetan oinarrituta.

Zentzu honetan, erresistentzia kooperatiben ezaugarri bezala askotan azpimarratu ohi den arren, egun ez dago kooperatiben konkurtsoari buruzko estatistika guztiz zehatzik. Datu hauek biltzeko konkurtsoen datu- baseetara jo beharra dago, kooperatiben konkurtsoak banaka detektatuz, horrek suposatzen dituen zailtasun handiekin. Honen adibide dugu berriki publikatu argitalpena, kooperatiben konkurtsoen kuantifikazio bat egiten duena 2005-2011 epealdirako, BOEak banaka aztertuz (ITURRIOZ eta MARTÍN, 2014, 93-95; lan honek azterketa interesgarria egiten du konkurtsoan adierazitako kooperatiben finantza ezaugarrien inguruan). Aurkezten dugun lan honetan internet bidezko konkurtsoen informazioa aurkezten duten webgunek erabili dira¹. Azterketa horren datuak eta lan honetan aurkezten ditugunak guztiz berdinak ez diren arren, oso hurbilak dira, eta tendentzia berak erakusten dituzte.

Beste alde batetik, orokorrean, existitzen diren kooperatiben inguruko datuak (absolutu eta erlatiboak) ere arazoak dituzte, izan ere datu-base ezberdinetan aurki ditzakegun datuak ez dira berdinak. Esaterako, Eustat-eko, OVES-GEEB behatokiko, INEko, edota Enplegu eta Gizarte Segurantzako Espainiako Ministerioaren datuak ez dira berdinak existitzen diren kooperatibei dagokienez, kooperatiben benetako dimentsioa ezagutzea zailteza eragiten duena². Lan honetan INEko datuak erabiltzen dira homogeneotasunaren mesedetan, izan ere, esan bezala, honetan Estatuko, EAEko eta Nafarroako datuak aztertzen dira, eta INEak guztiei dagozkien datuak jasotzen ditu, metodologia berdina jarraituz. Gainera, konkurtso kopuruei buruzko datuak ere (datu orokorrak, eta enpresariei dagozkienak) INEaren konkurtsoaren estatistiketatik ere lortu dira, berriro ere homogeneotasunaren mesedetan.

Honela, hurrengo orrietan jasotzen diren datuak INEko eta konkurtsoen informazio zehatza jasotzen duten webgunetako datuak konbinatuz lortu dira.

Aurkezten ditugun taulen edukari dagokionez, alde batetik, existitzen diren kooperatiba kopuruari buruzko datuak jasotzen dira, aldi berean hauek existitzen diren enpresari kopuruarekin alderatuz (enpresari guztien datuak kontuan izanda, eta baita, bereziki, banakakoak ez diren enpresarien datuak³). Beste alde batetik, kooperatibei dagozkien konkurtso adierazpenen datuak ja-

¹ Nagusiki www.webconcurisal.com, BOE ere erabili delarik informazioaren kontrasterako.

² Zailtasun hau, esaterako, OVES-GEEBak egindako 2012. urteko Euskadiko Gizarte Ekonomiaren Egoeraren Inguruko Txostenean ere azpimarratzen da (5-6 orr.) http://www.oves-geeb.com/uploads/files/eu/cientifico-academica/Informe_de_Situacion_de_la_Economia_Social_Vasca_2013_II.pdf

³ Lan honetan «enpresari» hitza erabiltzen dugu merkatuan jarduten duten eta enpresa jarduerak ustiatzen dituzten subjektu ezberdinei dagokienez, «enpresa» hitzaren orde. Hala ere, kontuan izan behar da erabilitako datu-baseek «enpresa» hitza erabiltzen dutela aurrekoa erabili beharrean; horregatik, hurrengo orrietako tauletako datuak, enpresariei dagokienez, datu-baseetan «enpresei» dagozkien datuak dira.

sotzen dira, berriro ere enpresarien konkurtso kopuruarekin alderatuz (enpresari guztiak, eta banakakoak ez diren enpresariak). Azkenik, datu guzti hauek aldi berean aztertzen dira, kooperatibek konkurtsoan sartzeko gainontzeko enpresariak baino tendentzia handiagoa edo txikiagoa duten aztertuz.

Zehazki, Espainiar Estatuari, EAERI eta Nafarroari dagozkion datuak aztertzen dira, 2005-2013 epealdirako.

Aurrerago ere azpimarratzen denez, azterketa honetan kooperatibak eta enpresariak modu kuantitatiboan aztertzen dira, tendentzia orokorrak aztertuz, interesgarriak eta osagarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk kontuan izan gabe: tamaina, langile-kopurua, sektorea, konkurtsoa likidazioan edo hitzarmenarekin bukatu den...

A) Kooperatiba-kopurua: datu absolutu eta erlatiboak

Ondorengo tauletan, Estatuan, EAEn eta Nafarroan dauden kooperatiba kopurua jasotzen da, kontabilizatuta dauden enpresari kopuruarekin eta banakakoak ez diren enpresari kopuruarekin alderatuz.

1. taula
Kooperatiba kopurua Espainiar Estatuan

URTEA	Kooperatibak	Enpresariak guztira ¹	Kooperatibak (%)	Banakakoak ez diren enpresariak ²	Kooperatibak (%)
2005	25.801	3.064.129	0,84	1.296.864	1,99
2006	25.328	3.174.393	0,8	1.265.826	2
2007	24.949	3.336.657	0,75	1.483.645	1,68
2008	24.516	3.422.239	0,72	1.564.308	1,57
2009	23.483	3.355.830	0,7	1.561.993	1,5
2010	22.702	3.291.263	0,69	1.545.351	1,47
2011	22.273	3.250.576	0,69	1.544.011	1,44
2012	21.764	3.199.617	0,68	1.543.150	1,41
2013	20.990	3.146.570	0,67	1.526.956	1,37
Batazb.	23.543	3.249.030	0,72	1.481.345	1,59

¹ INEko datuak (Explotación Estadística del Directorio Central de Empresas. Datos de empresas. Empresas por provincia y condición jurídica). Barneratutako enpresariak: sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, sozietate kolektiboak, komanditarioak, ondasun erkidegoak, kooperatibak, elkarteak eta beste batzuk, erakunde autonomoak eta beste batzuk, eta pertsona fisikoak.

² INEko datuak (Explotación Estadística del Directorio Central de Empresas. Datos de empresas. Empresas por provincia y condición jurídica). Barneratutako enpresariak: sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, sozietate kolektiboak, komanditarioak, ondasun erkidegoak, kooperatibak, elkarteak eta beste batzuk, erakunde autonomoak eta beste batzuk. Hau da, «enpresariak guztira» zutabearen datuak, banakako enpresariak (pertsona fisikoak) dagozkien datuak kenduta.

2. taula
Kooperatiba kopurua EAEn

URTEA	Kooperatibak	Enpresariak guztira	Kooperatibak (%)	Banakakoak ez diren enpresariak	%
2005	1.125	157.539	0,71	63.070	1,78
2006	1.130	161.376	0,7	65.508	1,72
2007	1.140	164.431	0,69	68.944	1,65
2008	1.216	175.303	0,69	73.465	1,66
2009	1.223	172.152	0,71	74.009	1,65
2010	1.247	169.782	0,73	73.806	1,69
2011	1.298	165.496	0,78	72.866	1,78
2012	1.378	159.005	0,87	71.491	1,93
2013	1.371	153.709	0,89	65.969	2,08
Batazb.	1.236	164.310	0,75	69.903	1,77

3. taula
Kooperatiba-kopurua Nafarroan

URTEA	Kooperatibak	Enpresariak guztira	Kooperatibak (%)	Banakakoak ez diren enpresariak	Kooperatibak (%)
2005	361	40.730	0,89	17.525	2,06
2006	349	41.083	0,85	18.104	1,93
2007	354	43.142	0,82	19.489	1,82
2008	356	43.847	0,81	20.183	1,76
2009	353	43.282	0,82	20.550	1,72
2010	363	42.347	0,86	20.378	1,78
2011	366	41.541	0,88	20.234	1,81
2012	378	41.305	0,92	20.256	1,87
2013	378	40.860	0,93	20.513	1,84
Batazb.	362	42.015	0,86	19.692	1,84

Aurreko taulek Estatu, EAE eta Nafarroa mailan kooperatibek jarraitzen dituzten tendentzia ezberdinak agerian geratzen dira. Hau da, Estatu mailan kooperatiben kopuru absolutua, eta hauek enpresari kopuruarekiko (orokorrean, eta pertsona juridikoak diren enpresariarekiko) suposatzen duten porzentajea urtez urte murrizten den bitartean, azken urteotan EAEn kooperatiba kopurua handitu egin da, 2008-2009 urteetatik aurrera, gainera, hauen pisu erlatiboa ere handitu egin da gainontzeko enpresari motekiko. Nafarroan 2005-2009 urteetan kooperatiba kopuruaren jaitsiera absolutu eta erlatibo bat dago, 2010. urtetik aurrera kontrako tendentzia dagoen bitartean.

Epealdi honetako datuak kontuan izanda, Espainian batzbeste 23.543 kooperatiba egon dira urtero, batzbeste enpresari guztien %0,72 izanda, eta banakakoak ez diren enpresarien %1,59. EAERI dagokionez, epealdi berbererako datuak 1.236 kooperatiba dira, enpresari guztien %0,75 eta banakakoak ez diren enpresarien %1,77 izanda. Nafarroan, 362 kooperatiba da urteotako media, enpresari guztien %0,86 eta banakakoak ez diren enpresarien %1,84 izanda.

B) Konkurtso adierazpenak

Hurrengo tauletan detektatu diren kooperatiben konkurtso-adierazpen kopurua jasotzen da, berriro ere Estatuan, EAEn eta Nafarroan. Kooperatiben konkurtso-adierazpenen kopurua urte bakoitzari dagokion konkurtso-adierazpen guztien kopuruarekin eta, bereziki, enpresariei dagozkien konkurtso-adierazpenen kopuruarekin eta banakakoak ez diren enpresarien konkurtso-adierazpenekin alderatzen da.

4. taula
Kooperatiben konkurtso-adierazpenak Espainiar Estatuan

URTEA	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso-adierazpenak guztira ¹	Kooperatiben konkurtsoak (%)	Konkurtso-adierazpenak. Enpresariak ²	Kooperatiben konkurtsoak (%)	Konkurtso-adierazpenak. Banakakoak ez diren enpresariak ³	Kooperatiben konkurtsoak (%)
2005	11	1.001	1,1	927	1,19	902	1,22
2006	11	968	1,14	915	1,2	891	1,23
2007	12	1.147	1,05	1.033	1,16	1.002	1,2
2008	19	3.298	0,58	2.894	0,66	2.791	0,68
2009	42	6.197	0,68	5.175	0,81	4.890	0,86
2010	57	5.962	0,96	4.990	1,14	4.728	1,21
2011	85	6.863	1,24	5.910	1,44	5.666	1,5
2012	91	9.071	1	8.095	1,12	7.780	1,17
2013 ⁴	119	9.660	1,23	8.934	1,33	8.691	1,37
Guztira	447	44.167	1,01	38.873	1,15	37.341	1,2

¹. INEko datuak. (Estadística del procedimiento concursal. Datos anuales de deudores concursados por Comunidades Autónomas y provincias. Deudores concursados por naturaleza jurídica). Konkurtso-adierazpen guztiak.

². INEko datuak. (Estadística del procedimiento concursal. Datos anuales de deudores concursados por Comunidades Autónomas y provincias. Deudores concursados por naturaleza jurídica). Enpresei dagozkien datuak: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak eta beste batzuk (gainontzekoak).

³. INEko datuak. (Estadística del procedimiento concursal. Datos anuales de deudores concursados por Comunidades Autónomas y provincias. Deudores concursados por naturaleza jurídica). Banakako enpresariak (pertsona fisikoak) ez diren enpresariei dagozkien datuak: sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak eta beste batzuk (gainontzekoak).

⁴. Behin-behineko datuak.

5. taula
Kooperatiben konkurtso-adierazpenak EAEn

URTEA	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso-adierazpenak guztira	Kooperatiben konkurtsoak	Konkurtso-adierazpenak. Enpresariak	Kooperatiben konkurtsoak	Konkurtso-adierazpenak. Banakakoak ez diren enpresariak	Kooperatiben konkurtsoak
2005	1	103	0,97	100	1	100	1
2006	1	95	1,05	92	1,09	91	1,1
2007	3	108	2,78	104	3,88	104	3,88
2008	1	209	0,48	196	0,51	187	0,53
2009	5	337	1,48	309	1,62	298	1,68
2010	2	330	0,61	305	0,66	295	0,68
2011	6	401	1,5	381	1,57	369	1,63
2012	9	556	1,62	538	1,67	526	1,71
2013	9	604	1,49	588	1,53	578	1,56
Guztira	37	2.743	1,35	2.613	1,42	2.548	1,45

Datu hauek argi erakusten dute, lehen esan bezala, Fagor Electrodomesticos eta Edesa kooperatiben konkurtsoa ez dela isolatutako kasu bat, izan ere, kooperatibek, merkatuan diharduten gainontzeko subjektu eta enpresariak bezala, kaudimengabezia egoeran egoteko eta, finean, konkurtsoan egoteko arriskua dute.

6. taula
Kooperatiben konkurtso-adierazpenak Nafarroan

URTEA	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso-adierazpenak guztira	Kooperatiben konkurtsoak	Konkurtso-adierazpenak. Enpresariak	Kooperatiben konkurtsoak	Konkurtso-adierazpenak. Banakakoak ez diren enpresariak	Kooperatiben konkurtsoak
2005	0	20	0	20	0	20	0
2006	0	19	0	19	0	18	0
2007	0	13	0	12	0	12	0
2008	0	44	0	42	0	42	0
2009	0	64	0	62	0	60	0
2010	2	79	2,53	77	2,6	76	2,63
2011	1	86	1,16	80	1,25	80	1,25
2012	0	130	0	120	0	120	0
2013	2	143	1,4	137	1,46	136	1,47
Guztira	5	598	0,84	569	0,88	564	0,89

Datuotatik ondorioak atera ahal izateko, existitzen diren kooperatiba kopuruaren inguruan azaldutako datuekin alderaketa egin behar da, hurrengo puntuan egiten duguna.

C) *Konkurtsoen eta kooperatiben portzentaien alderaketa*

Azkenik, hurrengo taula eta grafikoetan aurreko orrialdeetako tauletan lorturiko datu adierazgarrienak jasotzen dira, modu bateratuan aztertu ahal izateko. Hau da, ondorengo orrialdeetako taula eta grafikoen helburua kooperatibek enpresarietikiko (enpresari guztietatikiko eta banakakoak ez diren enpresarietikiko) kuantitatiboki duten pisu erlatiboa eta kooperatiben konkurtso-adierazpenek enpresarien konkurtso-adierazpenetikiko (berriro ere, enpresari guztiei eta banakakoak ez diren enpresarietara) dagozkien datuak kontuan izanda) kuantitatiboki duten pisu erlatiboa alderatzea da.

7. taula

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak Espainiar Estatuan

URTEA	Kooperatibak	Enpresarien %	Banakakoak ez diren enpresarien %	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso guztien %	Enpresarien konkurtsoen %	Banakakoak ez diren enpresarien konkurtsoen %
2005	25.801	0,84	1,99	11	1,1	1,19	1,22
2006	25.328	0,8	2	11	1,14	1,2	1,23
2007	24.949	0,75	1,68	12	1,05	1,16	1,2
2008	24.516	0,72	1,57	19	0,58	0,66	0,68
2009	23.483	0,7	1,5	42	0,68	0,81	0,86
2010	22.702	0,69	1,47	57	0,96	1,14	1,21
2011	22.273	0,69	1,44	85	1,24	1,44	1,5
2012	21.764	0,68	1,41	91	1	1,12	1,17
2013	20.990	0,67	1,37	119	1,23	1,33	1,37
Batazb./ Guztira	23.543	0,72	1,59	445	1,01	1,15	1,2

8. taula

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak EAEn

URTEA	Kooperatibak	Enpresarien %	Banakakoak ez diren enpresarien %	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso guztien %	Enpresarien konkurtsoen %	Banakakoak ez diren enpresarien konkurtsoen %
2005	1.125	0,71	1,78	1	0,97	1	1
2006	1.130	0,7	1,72	1	1,05	1,09	1,1
2007	1.140	0,69	1,65	3	2,78	3,88	3,88
2008	1.216	0,69	1,66	1	0,48	0,51	0,53
2009	1.223	0,71	1,65	5	1,48	1,62	1,68
2010	1.247	0,73	1,69	2	0,61	0,66	0,68
2011	1.298	0,78	1,78	6	1,5	1,57	1,63
2012	1.378	0,87	1,93	9	1,62	1,67	1,71
2013	1.371	0,89	2,08	9	1,49	1,53	1,56
Batazb./ Guztira	1.236	0,75	1,77	37	1,35	1,42	1,45

9. taula

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak Nafarroan


URTEA	Kooperatibak	Enpresarien %	Banakakoak ez diren enpresarien %	Kooperatiben konkurtso-adierazpenak	Konkurtso guztien %	Enpresarien konkurtsoen %	Banakakoak ez diren enpresarien konkurtsoen %
2005	361	0,89	2,06	0	0	0	0
2006	349	0,85	1,93	0	0	0	0
2007	354	0,82	1,82	0	0	0	0
2008	356	0,81	1,76	0	0	0	0
2009	353	0,82	1,72	0	0	0	0
2010	363	0,86	1,78	2	2,53	2,6	2,63
2011	366	0,88	1,81	1	1,16	1,25	1,25
2012	378	0,92	1,87	0	0	0	0
2013	378	0,93	1,84	2	1,4	1,46	1,47
Batazb./ Guztira	362	0,86	1,84	5	0,84	0,88	0,89

Existitzen diren kooperatiben eta konkurtsoan adierazitako kooperatiben datu erlatiboak alderatuta, aztertutako hiru lurraldeetan orokorrean konkurtsoan adierazitako kooperatibek konkurtsatutako enpresekiko duten pisu erlatiboa kooperatibek enpresarietikiko duten pisu erlatiboa baino handiagoa da, salbuespen txiki batzuekin (eta Nafarroako kasuan, hainbat urtetan hau gertatzen ez delarik, izan ere 5 kooperatiba baino ez dira konkurtsoan sartu, eta batzbestekoak ikusita ere, ezberdintasuna oso txikia delarik). Honek kooperatibek, gainontzeko enpresariekin konparatuz, konkurtsorako tendentzia handiagoa dutela esan nahiko luke.

Hala ere, banakakoak ez diren enpresarien datuak aztertzen baditugu, ondorio oso ezberdina ateratu daiteke, izan ere, orokorrean, hiru lurraldeotan kooperatibek banakakoak ez diren enpresarietikiko suposatzen duten portzentajeak eta kooperatiben konkurtsoek banakakoak ez diren enpresarien konkurtsoetikiko suposatzen duten portzentajeak alderatzen baditugu, bigarrenak ia kasu guztietan (eta batzbestekoei dagokienez, kasu guztietan) txikiagoak dira. Hau da, kooperatibek banakakoak ez diren enpresariet baino tendentzia txikiagoa dute konkurtsorako.


Aurrekoa erraz uler daiteke pertsona fisikoen (banakako enpresariak barne) konkurtsoen kopuru txikia kontuan hartzen badugu, erabiliena den enpresari mota den arren. Aurreko tauletan datu hauek garatuta eta alderatuta ez dauden arren, esaterako 1 eta 4 taulen datuak aztertzen baditugu (batzbesteko enpresari kopurua eta enpresarien konkurtso kopuru totala, enpresari guztiei eta banakakoak ez diren enpresariet dagozkien datuak alderatuta), nabarmena da banakako enpresariet enpresari kopuru orokorrean duten pisua (%54,51), azken hauen konkurtsoen zati txikia suposatzen ez duten bitartean (%3,94). Honen azalpena pertsona fisikoek eta juridikoek dituzten dinamika ezberdinetan topatu behar dugu, eta konkurtsoak lehenengoetikiko dituen gabezietan. Horrexegatik, bereziki jaso dira banakakoak ez diren enpresariet dagozkien datuak kooperatiben eta hauen konkurtsoen pisu erlatiboa aztertzerako orduan.

Hurrengo grafikoetan, beraz, kooperatiben eta hauen konkurtsoen datu erlatiboak topa ditzakegu, beti ere banakakoak ez diren enpresariet eta hauen konkurtsoet dagozkien datuekin alderatuta. Zutabe urdinak (lehenengo zutabea), existitzen diren kooperatiba kopuruaren portzentajea adierazten du, pertsona fisikoak ez diren enpresarietikiko. Zutabe gorriak (bigarren zutabea), konkurtsoan adierazitako kooperatiben portzentajea adierazten du, pertsona fisikoak ez diren enpresarien konkurtsoetikiko.




1. grafikoa

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak Espainiar Estatuan, banakakoak ez diren enpresarietako eta hauen konkurtso-adierazpenetikiko



2. grafikoa

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak EAEan, banakakoak ez diren enpresarietako eta hauen konkurtso-adierazpenetikiko



3. grafikoa

Kooperatibak eta kooperatiben konkurtso-adierazpenak Nafarroan, banakakoak ez diren enpresarietako eta hauen konkurtso-adierazpenetikiko

Aurretik aipaturiko salbuespenak kenduta, kasu guztietan bigarren zutabea (gorria) lehenengoa (urdina) baino txikiagoa dela nabarmena da. Honek, esan den bezala, kooperatibek gainontzeko banakakoak ez diren enpresarietako baino konkurtsoan adierazita izateko tendentzia txikiagoa dutela erakusten du, doktrinak hainbatetan azpimarratu ohi duen kooperatibek krisi garaietan eusteko duten indarra egiaztatuz. Hala ere, aldi berean, aurkeztutako datu eta grafikoek urteak igaro ahala kooperatibek konkurtsoan egoteko duten tendentzia erlatiboa handituz doala iradokitzen dute, bereziki Espainiako datuak aztertuta, kooperatiben erresistentzia handiagoa krisiari urte gehiagotan eusteko indar bezala interpretatu daitekeena. Hala eta guztiz ere, orokorrean kooperatibek oraindik ere konkurtsoan adierazita izateko tendentzia txikiagoa izaten jarraitzen dute.

Noski, aurretik egindako oharpenez gain, aurreko datuak aztertzerakoan bestelako elementuak ere kontuan izan behar ditugu. Alde batetik, arazo ekonomikoengatik desagertzen diren enpresa guztiek ez dute konkurtsoa jotzen, eta kasu hauek ez daude aurreko estatistiketan jasota. Ordea, deigarria da, esan den bezala, Nafarroan eta, bereziki, EAEn kooperatiba kopurua igo egin dela, enpresari kopurua jaitsi den bitartean. Honek konkurtsoetik kanpo desagertutako kooperatiben kopurua (absolutu eta erlatiboa) gainontzeko enpresariena baino txikiagoa dela iradoki dezake, nahiz eta hau baieztatzeko desagertutako eta sortutako kooperatiba eta enpresari kopuruari dagozkion datuak aztertu beharko genituzke.

Aldi berean, ez da baloratu konkurtsoa hitzarmenarekin edo likidazioarekin bukatu den (edo, kasu askotan, bukatuko den), ezta, bere kasuan, zein izan den hauen edukia (izan ere, nahiz eta likidaziora jo, enpresa jarduera ez da derrigor desagertuko).

Bestalde, datu hauek aztertzean, ez da kontuan izan kooperatiba mota, ezta zein sektoretan jarduten duen. Jakina denez, sektore bakoitzak bere dinamika propioak ditu, eta horrek kooperatiba batzuen konkurtsoarako tendentzia azal lezake. Horren adibide dira etxebizitza kooperatibak, gure inguruan oso hedatuta egon ez direnak, baina beste Autonomia Erkidego batzuetan asko erabilitako formula izan direlarik. Lan honetan aspektu hau garatu ez dugun arren, konkurtso egoeran dauden kooperatibak aztertuta, oso nabaria da lurralde batzuetako etxebizitza-kooperatiben konkurtso kopuru handia, esaterako Madrilen, kooperatiba mota hauen eta eraikuntza-sektorearen arazo bereziekin lotu behar dena.

3. Kooperatiben indarguneak krisiari aurre egiteko

Beraz, laburbilduz, aurreko datuek kooperatibak krisiaren menpe ere daudela ere erakusten dute. Hau da, sozietate hauek merkatuan jarduten

dute, eta honen gorabeherak (eskariaren jaitsierak, finantziarioa lortzeko arazoak, lehiakideen presioak...) haiengan ere eragina izango dute. Ordea, aldi berean, aurkeztutako datuek kooperatibek krisiari aurre egiteko indar edo erresistentzia handiagoa dutela iradokitzen dute, egindako oharpen guztiak kontuan izan behar direlarik.

Honela, esan bezala, doktrinak hainbatetan azpimarratu izan duena datuek ere bultzatuko lukete, hots, kooperatiben oinarritzko ezaugarriek eta berezitasunek indar handiagoa ematen dietela krisi garaietan enpresa jarduerari eusteko.

Aurreko argitalpen batean azpimarratzen genuen bezala (VILLAFANEZ, 2011: 158-163), krisi garaiei aurre egiteko, sozietate mota honen balio eta printzipioak oinarritzkoak dira (solidaritatea, partaidetza ekonomikoa, autonomia, kooperatiben arteko lankidetzeta...).

Esaterako, bazkideek, bereziki lan-bazkideak dituzten kooperatibetan, aldezturik jarri behar diren handiagoa izango dute enpresaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko eta enplegua mantentzeko beharrezkoak diren neurriak onartzeko (ordainsariak murriztuz, hauen zati bat ez kobratuz, ekarpen berriak eginez...). Nabariak izan dira, esaterako, gure inguruko hainbat kooperatibek egindako esfortzuak, Mondragoneko kooperatiben kasuan oihartzun mediatiko handia ere izan dutenak.

Noski, puntu honetan garrantzia handikoa da bazkideen eta kooperatibaren arteko harremanen legezko konfigurazioa, langile-bazkideei dagokienez hauen eta sozietatearen arteko harremana sozietarioa izango dela argitzen duenean (hau da, ez da Langileen Estatutuaren menpe dagoen lan-harremana). Honela, legediak bazkideei aipaturiko erabakiak hartzeko aukera ematen die, haien erregimenari dagokionez malgutasun handiagoa dutelarik, Lan Zuzenbidearen markoan zailagoak liratekeen erabakiak hartzea sozietatearen organoetan gehiengoz hartzea ahalbidetzen dielarik, beri ere bazkideen parte-hartze zuzenarekin.

Zentzu honetan, epaitegi batzuek adierazi dute galerak existitzekotan, bazkideek ez dutela zertan lan-aurrerakina (aurrerakin soziala, legearen arabera) eskuratzeko eskubiderik⁴. Orokorrean, onartu egiten da zailtasun ekonomikoak daudenean aurrerakinen ordainketa atzeratu daitekeela⁵, edo hauen zenbatekoa gutxitu⁶. Hala ere, kontuan izan behar da kooperatiba

⁴ Kanariar Uharteetako (Santa Cruz de Tenerife) Auzitegi Nagusiaren epaia, 2008ko otsailaren 27koa.

⁵ Kataluniako Auzitegi Nagusiaren epaia, 1999ko urriaren 29koa; Andaluziako (Malaga) Auzitegi Nagusiaren epaia, 2000ko azaroaren 17koa.

⁶ Andaluziako (Granada) Auzitegi Nagusiaren epaia, 2003ko ekainaren 24koa; Asturiaseko Auzitegi Nagusiaren epaia, 2006ko martxoaren 31koa; Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaia, 1999ko martxoaren 24koa; Lanaren Auzitegi Zentralaren Epaia 1989ko urtarrilaren 17koa.

bakoitzari aplikagarri zaion Lege konkretua, izan ere Espainiako kooperatiben lege guztiak ez dira berdinak arlo honetan. Esaterako, Euskadiko Kooperatiben Legearen 99.6 art.aren arabera langile-bazkideek gutxienez hilero Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoak ez diren aurrerakinak kobratzeko eskubidea izango dute, eta legeak ezarritako gutxienezko eskubide hau ez da xedagarria⁷.

Bestalde, kooperatiben legediak orokorrean ere zailtasun ekonomikoak daudenean (arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolakuntza-arrazoiengatik, produkzio-arrazoiengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik) bazkideen aldi baterako etetea edo derrigorrezko baja erabakitzea baimentzen da, kooperatibaren bideragarritasun ekonomikoa mantentzeko beharrezkoa denean, printzipioz halako erabakia Asanblada Orokorrak hartu behar duelarik (kasu hau ez dago aurreikusita Nafarroako Kooperatiben Legean).

Aldi berean, kooperatiben indar eta bideragarritasunerako garrantzia handia du hauen egitura ekonomiko eta finantzarioak. Denetarik kooperatibak topa ditzakegun arren, eta baita «0 etekina»ren politika jarraitzen dutenak, kooperatibek, orokorrean, epe laburrerako mozkina lortzea bilatu beharrean, enpresa indartzea eta honen egonkortasuna gailendu dituzte. Honek, noski, krisialdiari aurre egiteko baldintza hobekak izatea ahalbidetzen du.

Lehen aipaturiko ildoari jarraituz, kooperatiben bazkideek enpresarekin inplikazio eta konpromiso maila handiagoa izan ohi dute, eta etekin ekonomikotik haratago doazen helburuak bilatzen dituzte, sozietatea finkatzea eta bere hazkuntza bultzatuz, beste gauza batzuen artean kooperatibek bazkideen ingurunean kalitatezko lanpostuak sortzen dituztelako. Honegatik, bazkideek politika batzuk hobeto onartzeko tendentzia dute, esaterako etekinen kapitalizazio politikak, kooperatiben erresistentzia eta arrakastaren arrazoiari adibide bezala aipatu ohi denez (adibidez, Mondragoni dagokionez, FERNÁNDEZ, 2001: 90; AZKARRAGA, 2007: 265).

Aipagarria da kooperatiben legediak zentzu honetan izan duen bila-kaera, Euskadiko Kooperatiben Legearen kasuan oso nabarmena dena. Honela, legean jasotako hainbat neurri eta aurreikuspenen bidez kooperatibaren egonkortasun ekonomikoa eta hau indartzea bilatu da, esaterako kooperatibentzako gutxienezko legezko kapital bat ezarritik (EAEren kasuan eta Estatuko kooperatiba lege gehienek kasuan 3.000 eurokoa dena, eta Nafarroako kooperatiben legean 1.500 eurokoa orokorrean), kapitalaren aldakortasuna murriztuz (bajarako aurreabisu epea, gutxienezko egonaldia, kapitalari egindako ekarpenak bueltatzeko epea, baja kasuan errenboltoa baldintzarik gabe ukatua izan dezaketek ekarpenak...), edo finantziarioa lortzeko baliabide eta tresna berriak aurreikusiz (hauen artean, menpeko

⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaia, 2001eko urtarrilaren 23koa.

finantziarioak⁸) (beste askoren artean, ikus GADEA, 1999: 197-227; GÓMEZ eta MIRANDA, 2006: 37-53).

Noski, erreserben arauketak ere garrantzia handia du kooperatiben egonkortasun ekonomikoari dagokionez, eta bereziki Derrigorrezko Erreserba Funtsaren aurreikuspenak. Azpimarragarriak dira honi esleitu behar zaizkion partidak eta etekinen portzentaje garrantzitsuak (kooperatiben legeetan ezberdinak direnak, baina orokorrean kapitalezko sozietateetako doikuntza beharrak baino nahiko altuagoak jasotzen direlarik, erreserba hau erabiltzeko mugak ere kontuan izan behar direlarik, esaterako galerak inputatzerakoan, kooperatibek «0 etekin» politika ez jarraitzea sustatuz), eta, bereziki, bazkideen artean banaezina den funtsa dela, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren 3. printzipioa jarraituz, bere tratamendu fiskala ere kontuan izan behar delarik (GADEA, 1999: 222 eta hurr.).

Mondragoneko kooperatiben adibidearekin jarraituz, kooperatiben arteko solidaritate eta elkar-laguntza mekanismoek (bereziki interkooperazio funtsa, irabazien zati bat komunean jarritz kooperatiba guztietan birbanatzeko, eta solidaritate kooperatiborako funtsa, galerak dituzten kooperatiben egoera errazteko) zailtasun ekonomikoak zituzten kooperatibak mantentzeko historian zehar izan duten eragin positiboa ere aipagarria da (ALTUNA, 2008: 81). Jakina denez, honek ez du azkenean Fagor Electrodomesticos eta Edesa kooperatibak konkurtsoan sartzea ekidin, izan ere, baina urteotan hauentzat eta beste kooperatiba batzuentzat sostengu garrantzitsua izan dela esan daiteke, kooperatiben printzipio eta baloreetatik zuzenean eratorritako babes mekanismo oso interesgarria delarik.

Bestalde, bi kooperatiba hauek konkurtsoan egon arren, honek ez duela enpleguen desagertzen automatikoa suposatzen. Alde batetik, nahiz eta bi kasuotan konkurtsoa likidazioaren bidez amaitzen ari da, lerro hauek idazterako momentuan bi kooperatibon enpresa jarduera erosteko eskaintzak daude. Beste alde batetik, eta bereziki interesgarri eta garrantzitsua dena, kooperatiben arteko solidaritate eta elkar-laguntza mekanismoekin jarraituz, ezin daiteke ahaztu Mondragoneko kooperatibek ahal den neurrian zailtasunak dituzten gainontzeko kooperatiben (edo, kasu honetan, desagertzen diren kooperatiben) bazkide-langileak asumitzeko duten konpromisoa. Prentsan agertutako azken albisteen arabera, lan hau idazterakoan Mondragonek Edesa eta Fagorreko 980 bazkide birkokatu ditu taldeko beste kooperatiba batzuetan⁹.

⁸ Hauen inguruan polemika handia sortu den arren, menpeko finantziarioen arauketak errealitatean ez du legezketasun arazorik, egondako arazoak hauen komertzializazioarekin eman direlarik.

⁹ <http://www.eitb.com/es/noticias/economia/fagor-edesa-electrodomesticos/detalle/2250388/grupo-mondragon--ha-recolocado-980-socios-fagor-edesa/>

Kooperatiben arteko lankidetzaren garrantziarekin jarraituz, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren 6. printzipioari dagokiona, kooperatiben arteko egiturak azpimarratu behar dira, bigarren edo hurrengo mailako kooperatibez eta kooperatiben taldeez gain, hainbat elkarte, federazio edo konfederaziotan gauzatzen dena, EAEn bereziki garatuta daudenak, alde berean nazioarteko kooperatiba mugimenduaren baitan txertatuta daudelarik (ikus, adibidez, SALABERRIA, 2008: 437-442).

Noski, aurreko elementuak ez dute zerrenda itxi bat osatzen, eta, hemen garatuko ez ditugun arren, kontuan izatekoak dira ere Administra- zioetatik kooperatibak bultzatzeko hartzen diren bestelako neurriak, hala nola, diru-laguntza eta programa espezifikoak, organo espezifikoak (esate- rako, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua), eta, bereziki, koopera- tiben erregimen fiskal berezia, sozietate hauek gizarteari ekartzen dizkioten onura guztietan (aurrezki publikoa barne) oinarria duena.

4. Azken hausnarketa batzuk

Aurreko orrietan azaldutakoaren arabera, esan dugun bezala, azerttu- tako datuek hainbatetan azpimarratu den kooperatibek krisi garaiei aurre egiteko duten erresistentzia eta indar handiagoa egiaztatuko lukete, egin- dako nabardura guztiak kontuan izanda ere. Kooperatiben berezitasunak, zentzu honetan, indargune bat dira.

Hala ere, kooperatiben ahulgune batzuk ere azpimarratu behar ditugu, askotan sozietate mota honen kanpo-faktoreak direnak, baina haien egoe- ran eta existentzian ere eragina izan dezaketenak. Hauek oso agerian geratu dira Fagorren konkurtso-adierazpenaren eskaria iragarri zenez geroztik aza- larazi diren polemika eta zalantza guztiekin. Komunikabide batzuek koo- peratibekiko sortutako alarma eta iritzi negatiboa alde batera utzita, bere- ziki nabarmentzekoa da kooperatiben eta hauen erregimenaren ez-ezagutza eta honek dituen ondorioak. Deigarria izan dira oso, esaterako, bazkideen erantzukizun erregimenari, kapitalari egindako ustezko borondatezko ekar- penenei (antza errealitatean Euskadiko Kooperatiben Legearen 65.5 arti- kuluko borondatezko finantziarioak direnak, eta ez kapitalera egindako ekarpenak), edo menpeko finantziarioei buruzko eztabaidak, kooperatiben arauketaren eta zenbait oinarritzko ezaugarriren ezagutza maila txikia age- rian utzi dituztenak.

Aurreko guztia, harrigarria izateaz gain (izan ere, Euskadin tradizio koo- peratibo garrantzitsua dago, bertoko kooperatibak Mundu mailako errefe- rentzia argia izanda), oso kaltegarria da sozietate hauen funtzionamendurako, izan ere bai bazkideek bai kooperatibekin kontratatzen duten (edo kontrata- tuko luketen) subjektuengan segurtasun falta ikaragarria dakarkie.

Horrexegatik, kooperatiben legedian aspektu batzuk argitu eta gartzearen kalterik gabe, zalantza barik beharrezkoa da alor ezberdinetan kooperatiben ezagutza eta bisibilizazioa lantzea: irakaskuntza maila ezberdinetan (bereziki unibertsitatean, baina ez honi mugatuta), estatistiketan... Zentzu honetan, zoriontzekoa eta eskertzekoa da nahikoa aintzatesten ez den hainbat irakasle eta ikerlariren lana, kooperatiben eta, orokorrean, gizarte ekonomiaren inguruko ikerketa zentroak eta katedrak, behatokiak edota ikastaroak edo gradu-ondokoak sortuz.

5. Bibliografia

- ALTUNA, R. (2008), «Bases culturales e institucionales del desarrollo empresarial cooperativo de Mondragón», AA.VV. (Koord. Altuna, R., Grellier, H. eta Urteaga, E.), *El fenómeno cooperativo en el Mundo. Casos de Argentina, Brasil, Italia, País Vasco y Países Nórdicos*, Mondragon Bilduma, Arrasate, 33-90 orr.
- AZKARRAGA ETXEGIBEL, J. (2007), *Nor bere patroï. Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- FERNÁNDEZ, J.R. (2001), 1956-2000. *La Experiencia Cooperativa de Mondragón. Mondragon Esperientzia Kooperatiboa. The Mondragón Co-operative Experience*. Mondragón Corporación Cooperativa.
- GADEA SOLER, E. (1999), *Derecho de las cooperativas. Análisis de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de País Vasco*, Universidad de Deusto, Bilbo.
- GÓMEZ APARICIO, P. eta MIRANDA GARCÍA, M. (2006), «Sobre el régimen económico y financiero particular de las sociedades cooperativas», *REVESCO*, 90 zkia., 28-46 orr.
- ITURRIOZ DEL CAMPO, J. eta MARTÍN LÓPEZ, S. (2013), «El tamaño como elemento determinante de la insolvencia de las sociedades cooperativas: estudio a partir del concurso de los procesos concursales», *REVESCO*, 111 zkia., 90-107 orr.
- OVES-GEEB (2014), «Informe de Situación de la Economía Social Vasca. Año 2012». http://www.oves-geeb.com/uploads/files/eu/cientifico-academica/Informe_de_Situacion_de_la_Economia_Social_Vasca_2013_II.pdf
- SALA RÍOS, M., FARRÉ PERDIGUER, M. eta TORRES SOLÉ, T. (2014), «Un análisis del comportamiento cíclico de las cooperativas y sociedades laborales españolas y su relación con la actividad económica», *REVESCO*, 115 zkia. <http://pendiente-demigracion.ucm.es/info/revesco/txt/REVESCO%20Merce%20SALA,%20Mariona%20FARRE%20y%20Teresa%20TORRES.pdf>
- SALABERRIA AMESTI, J., «El asociacionismo cooperativo» (2008), AA.VV. (Zuz. Merino Hernández, S.), *Manual de Derecho de Sociedades Cooperativas*, CSCE-EKGG, GEZKI, Gasteiz, 437-447 orr.

VILLAFANEZ PÉREZ, I. (2011), «Basque cooperatives and the crisis: the case of Mondragon», Basque Cooperativism (Current Research series, n. 2), Center for Basque Studies (University of Nevada)-UPV/EHU, Reno (Nevada), 152-168 orr.